



Helduentzako bere lehen nobelea aurkeztu dau Nerea Arrien idazleak

Ainhoa Lores 2017-11-30 11:05 KULTUREA

Hirutter da liburuaren izenburua eta **Erein** argitaletxeagaz kaleratu dau.

BIZKAIE / KULTUREA

- Artea eta liburugintzea Bilboko BALA azokan
- AZ Play Lehiaketan % 73 hazi da parte-hartzea
- Film Laburren Jaialdia egingo dabe Bilbon, abenduaren 18tik 23ra
- Lekeitioko 29. Kale Antzerki Jaialdirako proposamenak aurkezteko epea, zabalik
- Amaia Elizaran eta Mystérieuses Coiffures, Karrikan-en irabazle
- Durangoko Azokako guneak gero eta garrantzitsuagoak dirala dino Gerediagak
- Benetan Be eta Rubik konpainien lanak aukeratu ditue Zubin
- Marias anaiak, 2017ko Eztabaidak Literatureagaz biribiltzeko
- Arriaga Antzokiak Opari Txartela jarri dau salgai
- Gazte sortzaileen topaleku izango da Ahots Baten egonaldia



Nerea Arrien (Argazkia: Erein) | [Ikusi handiago](#) | [Argazki originala](#)

- Durangoko 22. Euskal Dendeak 26.720 bisitari izan ditu, igaz baino 8.000 gehiago
- Nekazaritzeagaz lotutako jolas kooperatiboa plazaratu dabe Ikastolek
- IV. Loraldia aurkeztu dabe
- Ereduak apurtzeko gogoz joan da Gaztezulo Durangoko Azokara
- Euskal Herriaren eta itsasoaren arteko loturea liburu baten batu dabe

Helduen literaturara egin dau jauzia Nerea Arrienek *Hirutter* elebarriagaz. Liburu barrizaillea da egitura aldetik, izan be, irakurlea sare sozialen munduan jarten dau. Twitter, Facebook, Whatsapp eta bestelakoak komuniketako gehien erabilten diran tresna bihurtu dira gizarte honetan eta honeek dira hain zuzen be, tramea hazurtzen dabenak.

Atal laburrez dago osotuta Arrienek plazaratutako lana, *Twitterreko hari bat izango bazan moduan*, dino, eta horrek dinamikotasuna eta bizkortasuna emoten deutso nobeleari.

Trameari jagokonez, sare sozialetan partekatzen daben sexuzko bideo bategaz abiatzen da eta honegaz batera, *hiru personaz osotutako manada bat* dagoala aurreratu dau idazleak: Ines, Martin eta Gari. Epaiketa mueta bi be badira istorioan, ohikoa eta birtuala eta ez hain biktimea dan biktima bat.

Txikitatik ezagutzen dabe alkar hiru protagonistek eta euren arteko hartu-emon gorabeheratsuak agiri dira istorioan, euren buruaren ganean kontetan eta izkututzen dituenak. Egilearen arabera, intimidade muetak dira liburuaren gai nagusia. Inesek, Martinek eta Garik *jantzi bat jazten dabe intimidade horreek izkutatzeko eta hori estereotipoa da, horregaitik ainguratu naz sare sozialetan, honeek estereotipoen totema diralako.*

Nerea Arrienek igazko maiatzean aurkeztu eban *Pentsatzeko txokoa*, bere lehenengo lana, gaztetxuentzako liburua. Urte eta erdiren ostean, orain, liburu bi dakar ezkuartean, *Hirutter* helduentzako eta *Atrapa Eguna*. Azken hau be gaztetxuei zuzenduta.

Lekeitiarrak biokimikea eta piano ikasketak egin zituan eta gaur egun irakaslea da. Bere testuek argia ikusi eben lagun argazkilari baten irudiei berbak jarri eutsazanean. Ordutik hona, kolaborazino asko egin ditu hainbat aldizkaritan. Ipuin sariketa pare bat be irabazi ditu, *Hiria eta olatua* eta *Bi bala* testuakaz. *Pentsatzeko txokoa* narrazinoagaz, XXXIV. Lizardi saria irabazi eban.

Zabaldu artikulua:



ERANTZUN

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

Sartu »» [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)



[PUBLIZITATEA](#)

[LEGE OHARRA](#)

[NOR GARA](#)

BIZKAIE!

Arbidea, 1 (Txurdinaga), 48004 Bilbao
Erredakzinoa: Tel. 94 4162393 - Faxe 94 4150199

bizkaie@bizkaie.biz

Babesleak:



Codesyntaxek garatua